

**gizarte zerbitzuak**

2025GDIR0005  
Hitzarmena Elikagai bankua

**ESKORIATZAKO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUAREN ARTEKO  
LANKIDETZA-HITZARMENA**

Eskoriatzan, 2025eko martxoaren 13an

**BILDURIK**

Alde batetik Edorta Zubizarreta Alegria Eskoriatzako Udaleko alkate-udalburua.

Bestetik, BELÉN MENDEZ DE VIGO VEGA DE SEOANE andrea, 01353041-C NAN zenbakia duena, ELIKAGAIEN ZARRASTELKERIAREN AURKAKO ELKARTEA. GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA (aurrerantzean GEB), IFZ: 20605242, irabazi asmorik gabeko elkartearen izenean eta lehendakari gisa.

Bi aldeek lankidetzaren hitzarmen hau sinatzeko gaitasun osoa aitortzen diote elkarri, eta

**ADIERAZTEN DUTE**


GEB lurraldeko behartsuenei elikagaiak eta oinarriko produktuak emateko jardura egiten du, banaketako gizarte-erakunde bidez.

Jardura hau egiten duten Eskoriatzako udalerrian, GEB-tik elikagaiak eta premiazko ondasunak hilero, lotetan, jasotzen dituzten gizarte-entitateak daude.

Elikagai-baliabideak eskuratzeko, hainbat programa eta jardura aplikatu behar ditu GEB-k: Azken minutua (fabrikazio eta banaketa-entresen soberakinak berreskuratzea), dohaintzak, bilketak eta maiatzeko eta azaroko bi bilketa handiak.

Programa gauzatzeko eta jardura horiek garatzeko, GEBek bere gain hartu behar dituen kudeaketa-kostuak sortzen dira. Urtean zehar sortzen diren kudeaketa eta funtzionamendugastuen artean, honako hauek sartzen dira: lokalen errentamenduak, kontratatutako langileen kostuak, garraioak, administrazio-gastuak, hornidurak, ekipoen konponketa eta kontserbazio gastuak eta bestelako kudeaketa gastuak. Gastu horiek ez dira behar bezala estaltzen kudeaketa eta funtzionamendu gastu horietarako dauden diru-laguntzekin eta bestelako diru-sarrerekin.

Langile boluntarioen lankidetzaren doakoa den arren, komeni da aipatzea eragiketa eta kudeaketa lanetan 180 boluntariok hartzen dutela parte urtean zehar, egunero, eta horiei 1.500 inguru gehitu behar zaizkie, maiatzeko eta azaroko bi elikagai-bilketa handietan.

<b>Kodea/Código</b>	A25/0136	<b>Udala/Ayto</b>	Eskoriatza	
<b>CUDO</b>	000.0034.AAAAEME7.L.vMon			
<b>URL</b>	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/34/AAAEME7L.vMon">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/34/AAAEME7L.vMon</a>			
Dokumentu honen balidetasuna egiaztatzeko goiko Webgunean sar zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu/Para verificar la validez de este documento acceda a la WEB o lea la imagen QR				



Udalak onartzen du horrek guztiak lan handia dakarrela udal-eremuan bizi diren pertsona behartsuen beharrak asetzeko. Premia horiek, GEB-ren produktuak eman gabe, egun laguntzarik gabe geratuko lirateke, eta, beraz, GEB-k ematen dituen zerbitzuei eusten lagundu behar du.

GEBk ematen duen zerbitzuari eusteko ekarpen hori proportzionala izan behar da helburu bereko beste laguntza edo diru-sarrera batzuk estaltzen ez dituzten kudeaketa-gastuekiko, bilketa, biltegiatze eta banaketa prozesu osoa garatzeko eta udalerriko behartsuenei elikagaiak emateko.

Alde horretatik, kudeaketa-gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez dagoenez, elikagaiak erosteko hartutako baliabideak defizita estaltzeko erabili beharko lirateke, eta horrek behartsuen artean elikagaiak banatzeko gaitasuna gutxitzea ekarriko luke.

Horregatik guztiagatik, Eskoriatzako Udalak eta GEB-k lankidetzeta-hitzarmen hau sinatu dute, indarrean dauden arau-xedapenen arabera. Hona hemen hitzarmenaren

## KLAUSULAK

### **Lehena. Xedea.**

Lankidetzeta hitzarmen honen xedea da arautzea zer baldintzatan lagunduko dion Udalak GEB-ri gaur egun estaltzen ez dituen kudeaketa gastuak eta funtzionamenduak, hitzarmen honen zioen azalpenean azaldutako helbururako lortutako diru-sarrera eta diru-laguntzek estaltzen ez badute.

Laguntza ekonomiko horren zenbatekoa zehazteko, GEB-k banatzen dituen gizarte-erakundeen bidez udalerriak urteko jasotzen duten oinarritzko elikagai eta produktuen kopurua (kilogramotan adierazia) hartuko da kontuan.

Diruz lagundu beharreko zenbatekoa gehienez 250 eurotako izango da

### **Bigarrena. Elikagaiak ematea.**

GEB-k hileko emango dizkie udalerriko behartsuenei galkorrak edo lehorrak ez diren elikagaiak eta bestelako oinarritzko produktuak, udal esparruan lankidetzan diharduten gizarte entitateen bitartez, baldin eta aldez aurretik Udalaren zerbitzuek behar bezala ebaluatuta badaude.

### **Hirugarrena. Harrera-albaranak.**

GEB-k, hilerio, hornitzen dituen produktuekin batera, albaran bat emango du. Albaran hori dagokion Gizarte Erakundearen izenean produktu horiek jasotzen dituen pertsonak sinatu beharko du. Albaran horretan, produktu-familien arabera zerrendatuta, GEB-k erakunde laguntzaileari ematen dizkion kilogramoak agertuko dira, udalerriko horretako behartsuenei artean banatzeko.

Udalerrian lan egiten duten gizarte entitate guztien albaranetan agertzen diren kopuruaren urteko baturak zehaztuko du GEB-k urtean zehar udalerrian eman duen kopuru osoa.



### **Laugarrena. Diru-laguntzen zenbatekoa kalkulatzea.**

Aurreikusitako helbururako jasotako gainerako diru-laguntzek eta diru-sarrerek kontuan hartzen ez dituzten kudeaketa-gastuek sortutako defizita estaltzen duen diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, datu hauek hartuko dira kontuan:

- A. GEB-ren kudeaketa eta funtzionamendu-gastuen zenbatekoa, lurralde osoan, indarrean dagoen ekitaldirako, helburu bererako gainerako diru-laguntzak eta bestekoa diru-sarrerak kenduta. Hitzarmenaren indarraldiko urteetarako gehieneko zenbatekoa 150.000 eurokoa izango da.
- B. GEB-k urtean zehar Gipuzkoako gizarte entitateei ematen dizkien elikagai eta oinarritzko produktu ez-galkor edo lehorren kopurua, kilogramotan.
- C. GEB-k urtean zehar udalerriko behartsuei ematen dizkien elikagai eta oinarritzko produktu ez-galkorren edo lehorren kopurua, kilogramotan.
- D. Diru-laguntzaren zenbatekoa honela kalkulatu da: estali gabeko urteko gastuaren zenbatekoa (A) zati lurraldean banatutako urteko kopurua (B) eta koefiziente hori bider udalerrian urtean banatutako zenbatekoa (C).

$$(A/B) \times C = D$$

Diruz lagundu beharreko zenbatekoa gehienez 250 eurokoa izango da. Diru-laguntzaren zenbatekoak, xede horretarako gainerako diru-laguntzekin edo bestelako diru-sarrerekin batera, ez du hitzarmen honen xede den jardueraren kostu osoa gaindituko.

### **Bosgarrena: Jardueraren ziurtagiria.**

Urtea amaitu ondoren, eta hurrengo urteko urtarrilaren 15a baino lehen, GEB-k ziurtagiri bat bidaliko dio Udalari, lehendakariak emana, urtean zehar, lurralde osoan eta udalerriri osoan eman den elikagai-kopurua eta diru-laguntzek eta xede bereko beste diru-sarrera batzuek estaltzen ez dituzten kudeaketa eta funtzionamendu-gastuen zenbatekoa jasoko dituen, laugarren klausulako ekuazioa aplikatzearen emaitzarekin batera, urte bukatuari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa izango baita, hitzarmen honetako xedapenen arabera.

### **Seigarrena. Frogagiriak.**

GEB-k Udalaren eskura izango ditu dagokion ekitaldiaren balantzea eta ustiapen-kontua, horretarako kreditatutako erakunde batek ikuskatuta, hala badagokio, beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako izango dituzten kudeaketa-gastuak eta diru-sarrerak eta diru-laguntzak egiaztatzeko.

Era berean, Udalaren eskura izango ditu urtean zehar udalerrian parte hartzen duten gizarte entitateei emandako albaranak, laugarren klausulako ekuazioa aplikatzeko emandako datuak egiaztatzeko, hala badagokio.

**Zazpigarrena. Dirulaguntzaren ordainketa**

Diru ordainketa seigarren klausulan azaltzen diren agiriak agertu ondoren egingo da. Aurreko urtea bukatuari dagokion sarrera-gastuari kopuruaren zenbatekoa ordainduko dio udalak GEB-ari.

**Zortzigarrena. Indarraldia.**

Hitzarmen honek abenduak 31a arte izango du indarraldia.

Eta ezarritakoarekin bat datozela frogatzeko, bertaratuek sinatzen dute, bi aletan, adierazitako tokian eta egunean.

Eskoriatzako Udala

Gipuzkoako Elikagai Bankua